



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 14a

52. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legea aldatzen duena, elkarren bermerako sozietateen zerga onurei dagokienez. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15 autobidearen erabateko doakotasuna ezar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat azter, gara eta ezar dezan, Félix Urabaien Helduen Irakaskuntzako Institutuko ikasleei prestakuntza osagarria eskaintzeko, lan-munduaren ezagutza emanen diena eta enplegua lortzen lagunduko diena. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskola-jazarpenaren aurkako borrokarekiko konpromisoa erakusten du. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osorik bete dezan azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Legebiltzarraren Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak bete ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan tiket sozial bat edo beste formula batzuk, elikagaiak, produktu freskoak eta premia-premiazkoak eskuratzekoak, abian jartzeko aukera. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan Nafarroako gizon eta emakume langileen artean erantzunkidetasuna sustatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoaren garapena bultzatzea dezan Erriberan eta, bereziki, Tuteran, egungo aurrematrikulazio-prozesuan eskari osoari erantzunez. Hezkuntza Batzordeak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren aldez aurreko izapide guztiak egin ditzan, Sunbillan ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (11. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakia, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria izendatzekoa (12. or.).
- Nafarroako Kutxaren desagerpenari buruzko ikerketa batzorde bat eratzea. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legea aldatzen duena, elkarren bermerako sozietateen zerga onurei dagokienez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legea aldatzen duena, elkarren bermerako sozietateen zerga onurei dagokienez."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legea aldatzen duena, elkarren bermerako sozietateen zerga onurei dagokienez

SARRERA

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legeak 11. artikuluan arautu zituen elkarren bermerako sozietateen zerga onurak, martxoaren 11ko 1/1994 Legeak entitate mota horren funtsezko erregulazioa behin egin ondoren.

Zerga onuren araubideak sozietateen gaineko zerga eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga biltzen zituen. Ondoren, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeak 11. artikuluko horren 1. idatz-zatiko a) letra indargabetu zuen, eta ondoriorik gabe utzi zituen sozietateen gaineko zergan aipatzen diren zerga onurak.

Nabarmendu beharra dago elkarren bermerako sozietateak finantza entitateak direla, eta haien

helburu nagusia dela enpresa txiki eta ertainei kreditua eskuratzen laguntzea eta finantzabiderako baldintzak hobetzea, abalak emanez banku eta aurrezki kutxen aurrean. Zehazki, berme faltagatik finantzabiderik lortzerik ez duten enpresei laguntzeko zeregin garrantzitsua betetzeaz gain, maileguetarako interes tasa eta itzulketarako epe hobekak lortzen dituzte, eta horrekin nabarmen jaisten dira enpresa txiki eta ertain horien finantzaketa kostuak. Horri dagokionez, gogoratu behar da Foru Komunitateko enpresa sarearen ehuneko laurogeita hamar inguru oso enpresa txikiek osatzen dutela. Eta gauza jakina da entitate horiek zailtasun handiak dituztela finantzabide egokiak lortzeko.

Enpresa horien finantzabidea erraztu eta kreditua eskuratzen laguntzeko, foru lege honen xedea da aldaketa garrantzitsuak egitea ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren zerga onuretan, elkarren bermerako sozietateetan nahiz haien bazkideengan eragina duten horietan.

Aldaketa horiek egiteko hainbat arrazoi daude. Lehenengo eta behin, beharrezkoa da lege araua Hitzarmen Ekonomikoaren harmonizazio irizpideetara egokitzea, eta kentzea beharkizun bat, alegia, zerga onura horiek aplikatzeko, elkarren bermerako sozietateak Foru Komunitateko sozietateen gaineko zergaren araudiaren menpe egon beharra. Bigarrenik, salbuespena bermeak edo abalak eratu edo kitatzeko agiriei dagokienez aplikatuko dela zehazten da. Hirugarrenik ezartzen denez, elkarren bermerako sozietatea eta sozietateko kide den enpresa, zeinaren alde ematen baita bermea, lotzen dituen harreman juridiko osoa hartzen du salbuespenak. Horrek berarekin dakar salbuespenak enpresa txikietako bazkideek beraiek (edo haiekin lotutako zenbait pertsonak), era ditzaketan bermeak ere hartzea elkarren bermerako sozietateak bere enpresei emandako bermeak berriz

abalatzeko. Azkenik, hein batean parekatzen dira birfidantzamenduko sozietateen zerga onurak elkarren bermerako sozietateek dituztenekin, honetan oinarrituta: birfidantzamenduko sozietateak eratzten dira, hain zuzen ere, elkarren bermerakoek hartutako arriskuei behar adinako estaldura eta bermea eman beharrez, eta, horrela, elkarren bermerako sozietateeko bazkideentzat abalen kostua jaisten da.

Foru legeak artikulua bat eta azken xedapen bat ditu, eta ondorioak izanen ditu Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera sortzen diren zerga-egitateetan.

Artikulu bakarra. Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legearen 11. artikulua aldaketa.

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste zerga neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legearen 11. artikulua eduki hau izanen du:

"11. artikulua. Elkarren bermerako sozietateei eta haien kideei ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan aplikatzen ahal zaizkien zerga onurak.

1. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, Foru Komunitateko Administrazioaren menpe dauden zerga egitatei dagokienez, Espainiako Bankuaren Erregistro Berezian inskribatuta dauden elkarren bermerako sozietateek eta beraien kideek zerga onura hauek izanen dituzte:

a) Sozietateak bere kapitala gutxitzeko egiten dituen eragiketarako salbuespena, bai eta horiek formalizatzeko beharrezkoak diren egintza eta agiri-erarako.

b) Elkarren bermerako sozietatea eta bazkidea, zeinaren alde ematen baita berme bat, lotzen dituen harreman juridikorako salbuespena, bai eta berme hori gauzatu edo kitatzeko agiri-erarako ere.

c) Elkarren bermerako sozietatearen alde, aurreko b) letran aipatzen den harreman juridikoa dela medio, emandako berme mota oro eratzeko eta kitatzeko salbuespena, bai eta eragiketa horiek gauzatzeko agiri-erarako ere.

"Egintza juridiko dokumentatuen" konzepturako salbuespenak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Testu Bateginaren 22.2 artikuluan ezarritako karga baizik ez du hartuko. Testu bategin hori apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

2. Birfidantzamenduko sozietateek aurreko idatz-zatiko c) letran elkarren bermerako sozietateerarako aurreikusitako zerga onura berberak izanen dituzte, martxoaren 11ko 1/1994 Legearen 11. artikuluari jarraikiz haien sozietate xedean sartutako jarduerari dagokienez."

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta egun horretatik aurrerako zerga egitateetan izanen ditu ondorioak.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko
10/1990 Foru Legea aldatzen duena.**

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2016ko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako Foru Lege proposamena, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duena. Proposamen hori 2016ko martxoaren 11ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15 autobidearen erabateko doakotasuna ezar dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 7an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15 autobidearen erabateko doakotasuna ezar dezan." Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du AP-15 autobidearen erabateko doakotasuna ezar dezan, errazte aldera nafarrek bide hori erabili ahal izatea beren poltsikoetarako kostu handirik gabe."

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat azter, gara eta ezar dezan, Félix Urabaien Helduen Irakaskuntzako Institutuko ikasleei prestakuntza osagarria eskaintzeko, lan-munduen ezagutza emanen diena eta enplegua lortzen lagunduko diena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 7an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen dta plan bat azter, gara eta ezar dezan, Félix Urabaien Helduen Irakaskuntzako Institutuko ikasleei prestakuntza osagarria eskaintzeko, lan-munduen ezagutza emanen diena eta enplegua lortzen lagunduko diena." Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat azter, gara eta ezar dezan Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako depar-

tamentuen bidez, "Félix Urabaien" Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutuko ikasleei prestakuntza mota bat eskaintze aldera, prestakuntza akademikoaren osagarri, lan-munduen ezagutza ahalbidetu eta lana lortzen lagunduko diena.

Hartara, plan horrek honako hauek jaso beharoko lituzke, besteak beste: ikasleen lan-orientabidea, institutuan bertan prestakuntza-jarduerak egitea eta beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak jartzea."

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskola-jazarpenaren aurkako borrokarekiko konpromisoa erakusten du.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 7an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskola-jazarpenaren aurkako borrokarekiko konpromisoa erakusten du." Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak eskola-jazarpenaren aurkako borrokarekiko konpromisoa erakusten du.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitateko eskola-

jazarpenari eta -indarkeriari buruzko txosten bat egin dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du dauden jarduketa-protokoloak gara ditzan eta eskola-jazarpena desagerrarazten lagunduko duten neurri berriak bila ditzan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prebentzio eta informazio kanpainak egin ditzan, bai eta prestakuntza-jarduerak ere, teknologia eta sare sozialak behar bezala erabiltzera bideratuak"

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osorik bete dezan azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 7an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osorik bete dezan azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa." Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea osorik bete dezan eta, bereziki, adingabe transexualen familien sentsibilizazio-, arreta- eta lagun egite kanpainekin zerikusia duena eta hezkuntzaren arloko ekintzei lotutako guztia."

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Legebiltzarraren Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak bete ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 7an onetsitako ondoko erabakia: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Legebiltzarraren Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak bete ditzan." Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Osoko Bilkurak 2012ko ekainaren 15ean onetsitako ebazpena, 1. eta 3. puntuetan, bete dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Justizia Ministerioaren aldetik jaso ditzan Eliza katolikoak Nafarroan, 1946tik gaur egun arte, egin dituen immatrikulazio guztiak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Iruñeko eta Tuterako elizbarrutiei eska diezaien immatrikulatutako ondasunak itzultzeko. Ondasun horiek erregistratzeko gogoari eusten badiote, banan-banan eginen dute, era publiko eta nabarian, ondasun horien gainean hirugarrenek izan ditzaketen eskubideak babesteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratzen ez direino,

ondasun horiek mantentzera eta zaintzera bideratutako politika instituzional oro baloratua eta berrikusia izan dadin ukitutako herrien interesen, ondasun horien berreskurapenaren eta nafar ondare komunaren segurtasunaren arabera.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako toki entitateek edo zilegi duen gainerako edonork eskaturik abiarazten diren prozedura judizial guztietan ager dadin, xedea denean Eliza katolikoak immatrikulatutako ondasun higiezinak berreskuratzea.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, informa dezan Nafarroako elizbarrutiek 1979tik 2015era bitartean pribatizatu dituzten ondasun guztiak -higigarriak zein higiezinak- mantentzeko eta konpontzeko esleitu diren kontusail instituzional guztien zenbatekoei eta xedeei buruz.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, abiaraz ditzan aldatutako artikuluen (Hipoteka Legearen 206. artikulua eta Hipoteka Erregelamenduaren 5. artikulua) konstituzio-kontrakotasuna aldarrikatzeko izapideak, erregistroko amnistia ekiditeari eta immatrikulatutako ondasunak berreskuratzeari begira."

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan tiket sozial bat edo beste formula batzuk, elikagaiak, produktu freskoak eta premia-premiazkoak eskuratzekoak, abian jartzeko aukera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 7an onetsitako ondoko erabakia: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan tiket sozial bat edo beste formula batzuk, elikagaiak, produktu freskoak eta premia-premiazkoak eskuratzekoak, abian jartzeko aukera.” Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Azter dezan tiket sozial bat edo beste formula batzuk, elikagaiak, produktu freskoak eta premia-premiazkoak eskuratzekoak, abian jartzeko aukera. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek kudeatuko dute, eta emergentzia sozialeko egoeran dauden pertsona eta familiei zuzenduko zaie, garapen-fasean dagoen Gizarteratze Planaren esparruaren barnean. Hala ere, alde zuzenetik diagnostikoa

egin beharko da, eta bertan entzuten da zailtasun handienak dituzten familiek elikagaien eta oinarrizko produktuen beren beharrezkoak instalatuta izan dituzten gaur egun ekintzak gauzatzen dituzten entitate sozialek esan beharrezkoa. Era berean, beharrezkoa izanen da ezagutzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalak tiket soziala abiarazteari buruz eta hori dagoeneko abiarazi diren emergentziako laguntzekin uztartzeari buruz daukaten iritzia. Horrez gain, baloratuko da laguntza-tipologia eta/edo -prozedura berririk sortu behar ote den helburu horretarako, gaur egun dagoena bikoiztu gabe.

2. Azterlana egiten den bitartean, laguntza hori kudeatuko da gizarte-larrialdietarako laguntzen bidez, betiere gune bakoitzeko benetako beharrezkoak kontuan hartuta.”

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan Nafarroako gizon eta emakume langileen artean erantzunkidetasuna sustatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 7an onetsitako ondoko erabakia: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan Nafarroako gizon eta emakume langileen artean erantzunkidetasuna sustatzeko.” Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan Nafarroako gizon eta emakumeen artean erantzunkidetasuna sustatzeko lan arloan, hala esparru publikoan nola sektore pribatuan. Horretarako, beste ekintza batzuen artean, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan orain dela urtebete

sortu zen Berdintasun Batzordea indarberrituko du, eta INAI ere sarraraziko du, negoziazio kolektiboaren esparruan enpresa pribaturako zein administrazio publikorako proposamen zehatzak egite aldera.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontratazio publikoetan pizgarrien sistemak ezar ditzan, halako moduz non balorazio-baremoetan era positiboan baloratuko diren enpresek izan ditzaketan bateragarritasun-planak.

Nafarroako Parlamentua umeen jaiotza, adopzio edo harrera kasuetan dauden baimenak erabat berritzearen alde dago, bi gurasoentzat iraupen berdina izan dezaten eta besterenezinak, ordain-

duak eta ondoz ondokoak izan daitezen. Horretarako:

a. Espainiako Gobernua premiatzen du baimen-sistema horrela alda dezan, kronograma zehatza eta egingarria ezarrita.

b. Nafarroako Gobernua eta INAI premiatzen ditu, 2106a amaitu baino lehen, azterlan bat egin dezan. Bertan adin txikikoak eta laguntza behar duten senideak zaintzeagatik emakumeek pairatzen duten ezberdinkeria aztertuko da, eta baimean parekatzeko proiektu pilotua proposatuko da, baita 2017tik aurrera hori aplikatzeko egutegia eta ondoren sektore publikoan eta pribatuan garatzeko

behar den inbertsioa ere, ordezkari sindikalekin adostu eta gero.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sentsibilizazio, sustapen eta erantzunkidetasun kanpainak eta beharrezkotzat jotzen dituen ekintza guztiak gauzatu ditzan, gure gizartean aldaketa kultural baterantz abiarazteko; aldaketa horrek rol eta estereotipo sexistak baztertuko ditu eta ikuspegi partekatu eta berdintasunezko bat ahalbidetuko du, bizitza mantentzeko behar diren lan guztiei (zaintza barne) dagokienez.”

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoaren garapena bultzatzen dezan Erriberan eta, bereziki, Tuteran, egungo aurrematrikulazio-prozesuan eskari osoari erantzunez.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2016ko apirilaren 12an onetsitako erabakia: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoaren garapena bultzatzen dezan Erriberan eta, bereziki, Tuteran, egungo aurrematrikulazio-prozesuan eskari osoari erantzunez.” Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du eskola publikoaren garapena bultzatzen dezan Erriberan eta, bereziki, Tuteran, egungo aurrematrikulazio-prozesuan eskari osoari erantzunez, ikastetxe publikoetan unitaterik kendu gabe eta Tuterako

eta haren eragin-eremuko ikastetxe publikoetan ikasle gehiago hartzeko ekintza zehatzak garatuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Tuterako eta haren eragin-eremuko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatu guztietan ikaspostu-erreserba bat ezar dezan, eskolatze-eskaera berriak eta “bat-batean agertutako” ikasleak hartze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du ikastetxe publikoetan eskolatze-eskaera osoari erantzuteko behar beste hezkuntza-esparru publiko sor ditzan.”

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren aldez aurreko izapide guztiak egin ditzan, Sunbillan ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2016ko apirilaren 12an onetsitako ondoko erabakia: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren aldez aurreko izapide guztiak egin ditzan, Sunbillan ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko”. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala has ditzan Nafarroako Sunbillako herrian ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko beharrezkoak diren aldez aurreko izapide guztiak”

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakia, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria izendatzekoa.

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 25. artikuluekin bat, eta behar den gehiengoarekin, Asunción Olaechea Estanga andrea izendatu du Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakari, sei urteko aldirako.

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Kutxaren desagerpenari buruzko ikerketa batzorde bat eratzea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuarne Osoko Bilkurak, 2016ko apirilaren 7an egindako bileran, onetsi zuen Nafarroako Kutxaren desagerpenari buruzko ikerketa batzorde bat eratzea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
